

IZARO ELORZA ARREGUIK, Oñatiko Alkatea naizenez eta legeek ematen dizkidaten ahalmenen arabera, ondorengo agintzea erabaki dut:

BANDOA

HIRIGUNEETAN SUAREN ERABILERAREN ARAUTZEA. LANDARE-HONDARRAK MODU KONTROLATUAN ERRETZEA.

BASO-SUTEAK

Herrigunean aire zabaleko sutearen erabilera arautzea Udalari dagokio, ondoko mendian baso-sutearen arriskua saihesteko 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak bere 25.2.f) artikuluan jasotzen duenaren arabera. Halaber, 2414/1961 Dekretuak, azaroaren 30ekoa, Jarduera Deseroso, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuen Erregelamendua onartzen duenak, bere 3. Artikuluan jasotzen dituen jarduera deserosoak arautzeko nahian ere ondorengo xehetasunak jasotzen dituen Bandoa onartzea erabaki da.

HIRI LURREAN KONTROLATUTA ERRETZEA BAIMENTZEKO PROZEDURA, BASO SUTEEN ARRISKU HANDIKO GARAITIK KANPO LANDARE HONDARRAK EZABATZEKO

• Hiriguneetan landare-hondakinak erretzeko, udalari jakinarazi beharko zaio aurrez eta **hileko lehen asteazkenean egin ahal izango da soilik**.

1. Udalaren erregistro orokorrean aurkeztutako eskaera orokor baten bidez, "landare-hondakinak" (inausketa-hondarrak, belar-sastrakak garbitzekoak, etab.) erretzeko jakinarazi beharko zaio Udalari aurrez, gutxienez erreketak egin behar den eguna baino astebete lehenago jakinarazi beharko zaio Udalari.

2. Eskabidean honako hauek adierazi behar dira:

- Erretzeko lekuaren helbidea edo erreferentzia zehatza (kalea eta zenbakia, lurzatiaren katastro-erreferentzia, etab.).
- Interesdunaren (erretzearen arduraduna) datu pertsonalak, jakinarazpen-helbide bat eta harremanetarako telefono bat emanez.

3. Erregistro Orokorraren bidez aurkeztu behar da, bai Foruen Enparantza 1. zenbakian, bai egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus/WAS/AYTO/USCServicioCiudadanoVer15WEB/home.do?ayto=059>

Horrela agindu eta jakinarazten dut . Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

Alkateak

Oñatiko Udala
Foruen Enparantza, 1 • 20560 Oñati
tel: +34 943 78 04 11 • onati.eus



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:	BANDOA (ZUZENDUTA)
CSV/EKS:	SINA8630049a-d341-4fdc-9269-4b68e5261ed3